



## Txapelketez betea dator udazkena

**Hurrengo hilabeteetan zehar jokatuko dira Bizkaiko eta Nafarroako banakako bertsolari txapelketak, aurrekoetatik bi urte igaro direnean. Aldi berean jokatuko da Xilabako taldekako txapelketa ere.**

Azken asteetan aurkeztu dituzte udazkenean jokatuko diren bertso txapelketen xehetasunak. Oraingoan, hiru lurraldetan izango dira txapelketak aldi berean. Bizkaian eta Nafarroan, bi urtero egiten den bezala, banakako bertsolari txapelketak jokatuko dira; Zuberoan, Lapurdin eta Baxenabarren, aldiz, taldekako txapelketa izango da, orain lau urte egin bezala.

Bizkaian urriaren 1ean hasiko da txapelketa, Mungian. Kanporaketan fasean 36 bertsolari ariko dira, Udabarria Bertsotan sailkapen fasetik sailkatutako 30, eta 2021eko finalurrekoetan aritutako beste sei. Denera, sei kanporaketa izango dira: Mungian, Gernika-Lumon, Arrigorriagan, Erandion, Igorren eta Lekeition. 36 parte-hartzaile horietatik 11k egingo dute aurrera, finalurrekoetara, eta han zain izango dituzte finalurrekoetara zuzenean sailkatutako zazpi bertsolariak, hain zuzen ere 2021ean finalista izandakoak. Finalurrekoak hiru izango

dira, Berrizen, Santurtzin eta Lemoan, azaroaren 11n, 18an eta 25ean hurrenez hurren. Hiru horietako irabazleak eta puntuazio altuena lortzen duten beste bost bertsolariak sailkatuko dira finalerako. Bilbon jokatuko da azken hau, abenduaren 16an.

Urriaren 7an abiatuko da aldiz Nafarroako Bertsolari Txapelketa, 46.ena. 24 bertsolarik hartuko dute parte guztira, hasieratik denak. Kanporaketak lau izango dira, Iruritan, Vianan –kasu honetan, txapelketan lehen aldiz-, Uhartan eta Leitzan. Hortik 18 bertsolarik egingo dute aurrera, finalurrekoetara. Hiru saio izango dira fase honetan, Altsasun, Agoitzen eta Lesakan, azaroaren 4an, 11n eta 19an hurrenez hurren. Bizkaian bezala, hiru saioetako irabazleak eta puntuazio onena lortzen duten beste bostak izango dira finalera sailkatzen direnak. Abenduaren 2an jokatuko da Nafarroako finala, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian.

### Ipar Euskal Herrian, taldeka

Zuberoan, Lapurdin eta Baxenabarren taldekakoa izango da aurtengo bertsolari txapelketa. Irailaren 22an abiatu zen Ozazen. Denera, bederatzi talde eta 38 parte-hartzaile izango dira kantuan, horietatik 16 emakumeak. Lehen ligaxkan, bederatzi saio izango dira, Ozazen, Urruñan, Saran, Amenduzen, Hendaian, Baionan bitan, Hazparden eta Aldudun. Lehen finalerdia urriaren 28an izango da Muskildin, eta bigarrena azaroaren 4an Azkainen. Finala, azkenik, azaroaren 18an jokatuko da, Aiherran, bertso bazkariaren ondotik.

Taldekakoak, bertsoa ardatz, atea irekiko dizkie beste arte diziplinei ere, hala nola musikari edota antzerkiari. Gainera, taldekako formatuaren alde informala azpimarragarria da: banakako txapelketako zurruntasunetik at, taldekako Xilaba jostaria izango da.



**GARAZI NAVARRO  
UGARTEBURU**  
Zarautz, 2023-09-01  
Lizardi Sariko 47. edizioko  
txapelduna



Doinua: *Zer da gaur Donostian*

Aupa, ez dut sekula ezer irabazi gimnasia azkena beti zen Garazi. Eta orain zer raro ta honek ze grazi, baina zenbat subidoi ta zenbat estasi, ze irabazten ere behar da ikasi.

Udazken honetan ere izango dira txapelketak bertsozaleen gozamenerako. //XDZ

# 40 urte bete ditu Bizkaiko Bertsozale Elkartek

**Iurretan elkartu ziren iraila hasieran Bizkaiko Bertsozale Elkarteko behargin, behargin ohi, bazkide eta gainerako lagunak. Bertso doinuekin lagundurik egin zuten urteurren ospakizuna.**



Argazki zaharren galeria ikusgai dago [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian. //XDZ

Bizkaiko Bertsozale Elkartek 40 urte bete ditu aurten. Bere sorreran, orain 40 urte, bertsolari ikasleen elkarte sortu zuten: Bizkaian zeuden bertso-eskolen sare bat zen, entitate bat. 1980ko hamarkadan, bertso saioak ugaritzen ari ziren Bizkaian. Herri askotako bertso-eskolek antolatzen zituzten saioak euren erara. Bilboko Aste Nagusiko eta udaberriko saioak antolatzeko elkarte bat behar zuten, eta horrek batu zituen herrialdeko sei eskola. Garai nahasiak zirenez, gaztelerazko izena jarri behar izan zioten: horrela bihurtu zen Bizkaiko Bertsolari Ikasleen

Elkartea *Asociación de Versolaris Noveles de Vizcaya*, eta horrela eman zioten baimena sortzeko. Sorrerako kontuak eta gaur egun dituzten erronkak bildu dituzte Bizkaiko Bertsozale Elkarteko lagunak liburuxka batean.

Liburuxka horretan jaso dituzte 40 urteko ibilbidean egindako hedapena, bulegoko lana edo emakumeak bertsolaritza lehen lerroan jartzeko egindako lana: Bizkaiko Elkartean ehundaka eskuk egindako lanari eskertza. Bertsozale Elkarteen webgunean dago eskura web bertsoa.

Bizkaiko Bertsozale Elkartek bertso-eskoletan ditu sustraiak, eta bertsoa herrialde osora hedatzea izan du helburu hasieratik. Urteekin, bestelako jomuga batzuk ere bildu dituzte, hala nola, emakumeen presentzia indartzea plazetan.

Iurretan egindako ospakizunean herriko plazan bildu ondoren, Montoste elkartean egin zuten bazkaria; eta bertan, urteurrenerako egindako bertso sortak abestu zituzten. Besteren artean, Joserra Bilbaok elkartearen sorrerari jarritakoak, Kristina Mardarasek emakumeen plazaratzeaz edo Igor Elortzak txapelketaz. Hauekin batera sorta guztiak topa daitezke aipatutako liburuxkan.

Elkarteen hasierako urteetako argazkiak eta ospakizun egunekoak ikusgai daude [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian.



Iurretan bildu ziren Bizkaiko Bertsozale Elkarteen 40. urteurrena ospatzeko. //XDZ

# Hasi da Hitzetik Hortzerako denboraldi berria

**34. denboraldia izango da aurtengoa, eta Mirari Martiarena izango da aurkezle berria. Larunbatero, 21:00etan, bertsolaritzarekin hitzordua ETB1en.**

Hitzetik Hortzeraren denboraldi berria 26 programak osatuko dute. Irailaren 16an hasi zen, eta martxoaren 30ean bukatuko da. Asteroko hitzorduei udazkenean ospatuko diren Bizkaiko eta Nafarroako Bertsolari Txapelketei loturik egingo diren saio bereziak gehituko zaizkie. Aurten ere programaren oinarria bertsoa izango da, eta Euskal Herri luze zabalean jaialdiz jaialdi ibiliko da Hitzetik Hortzera. Helburua garbia da: beste urte batez telebistan erreferentziatzeko bertso plaza izaten jarraitzea.

## Berritasun ugari dakartzan denboraldia

Hitzetik Hortzera bertsolaritza programak ibilbide berri bati ekin dio 2023ko irailean. Bost urteko zikloari amaiera eman zion 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiak markaturiko iazko denboraldiak, eta azal berriturik itzuli da programa telebistara. Aurkezle aldaketa, iruditeria eta programa osatuko duten eduki ezberdinak izango dira berritasun nabarmenenak.

Mirari Martiarena izango da programako aurkezle berria. Oiartzuarra iaztik Hitzetik Hortzerako gidoilari lanetan ari da, baina aurten erronka berri bati ekingo dio. ETB1eko Hitzokei programan kolaboratzaile bezala aritu zen, tartean Txapelketa Nagusiaren jarraipena eginez, eta bakarriketarako egin ditu Barre Librea umore saioan. Bertsozaletasuna etxetik datorkio, eta gaztetatik Oiartzungo bertso-eskolako partaidea da.

Ziklo berri baten hasiera adierazteko, Hitzetik Hortzerak iruditeria berria izango du. Unai Gaztelumendi sortzaileak egin du programarako grafismo berria.

Aipatu bezala, programaren muina bertso saioek osatuko dute; astero, bi bertso plazatako saioekin gozatzeko aukera izango da. Astez aste gonbidatu bat elkarriketatuko du Mirarik, izan bertsolaria, bertsozalea edo euskal kultur sortzailea. Ohitura den bezala, bertsolaritzaren ekosisteman gertatzen denaren berri ere emango du Hitzetik Hortzerak. Atzera begiratzeko tartea ere izango da, bertsoaldi historikoeekin gozatzeko aukera ere izango baita.

Denboraldiaren lehen zatian programarako propio sortuak izan diren bertso sorta musikatuak izango dira, zazpi guztira, eta irailean hasi eta abendura bitarte ikusiko dira. Kantuan entzungo ditugu Agin Laburu, Ainhoa Agirreazaldegia, Aitor Etxebarriazarraga, Haira Aizpurua, Joanes Illarregi, Jone Uria eta Maddi Agirre; bertsoak musikatzekeo ardurak Beñat Antxustegi eta Eneko Sierrak izango dute.

Larunbatero eskainiko da Hitzetik Hortzera, 21:00etan, ETB1en; eta ondoren, noiznahi EITB Nahieran atarian. Aste honetan, Zinemaldia dela eta, igandean izango da programa 15:00etan hasita.



Gaizka Azkarate, Mirari Martiarena, Irene Zaldua eta Haritz Arrizabalagak osatzen dute Hitzetik Hortzerako lantaldea. //XDZ



## Puntu jarrita

LEIRE CASAMAJOU ELKEGARAI

Txiste bat herritarrik mitikoenari, txista bat politikariari. Hori zen dena. Alta, lana ontsa egiteko, ongi baino hobeki jakin behar ginuen nori zuzenduko zitzaion bertsoa. 15 asteburuz, 90 bat jenderi kantuz aritu zaizkie Maiana (nausia) eta Marlène (mitila), aurtengo xorrotzak. Haiek botza, nik luma; horrela antolatzen ginen. Ideientzat, aldiz, hiruk batera, zeren ez baitzen lanik errexena. Bizi ohidurak aldatu dira, eta auzoa ezezagunagoa bilakatu zaigu. Herritarrei mezuka ibili behar izan nintzairen, harrera egiten zigutenei buruz galdezka. Uste dut hori dela maskaradatik atxikiko dudana, herri eta biztanleen hobeki ezagutu izana. Ez ote zen helburua? Lortua!

Maskarada eta euskararen arteko harremanaz, orain... Badu onetik. Baina, azaleko errealtate hipokrita bat bezala ere ikusten dut ihauteriaren aroa. Ez nuke deuseztatuko maskarada batek hizkuntzari egin diezaiokeen ekarpena; hala ere, aitortu dezagun Xiberuak euskararekiko duen lotura ez doala usu folkloretik haratago. Bortitzegia izatea da, beharbada? 4 hilabeteko lorpenak ere baloratzeak dira? Seguraski. Baina hori nahikoa bezala kontsideratzea? Ze huts egite aitormena!

Maskarada eta euskararen arteko harremanaz, beraz... Badu onetik. Baina, sakoneko errealtate zintzoa, ondokoa da, ene ustez: xiberutarrek ez dute ekimenetik haratagoko hizkuntza ideologia politikorik garatzen, ezta honen beharra ikusten ere; salbuespenak salbuespen. "Ez dük hala!" Hala da, bai, behin erran zidaten gisara: "Ari düzü bai xiberotarrez, buhame izaiteko pürü". Ez baita gauza bera, gainera, xiberutarrez edo euskaraz egitea Xiberuan; beste gai sakon bat litzateke hori. Dena dela, eni dagokidanez, maskarada eta pastoralara mugatzen den xiberutarra baino, euskalduna izatea nahiago. HUA!

Hiri hitza, Xalbat. Gai emailan lanetan ari haizela, nolako lana duk hori? Zerk inspiratzen hau?

# Koplak

## Ahalduntze Bertso Eskola Feminista

Urriaren 21ean hasiko da Ahalduntze Bertso Eskola Feministaren aurtengo ikasturtea. Emakumeen plazaratzea bultzatzeko asmoz hasi zen bertso-eskola 2015ean, eta jada zenbait ikasturte egin ditu. Hilean behin elkartzen da taldea, larunbatez. Informazio guztia [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian.

# Poto-Finixa



2024an Bertso Udalekuak berriz!

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

## Bat-bateko bertsoak transkribatzeko ikastaroa, irailaren 28an Iruñean

Bertsoak transkribatzeko doako ikastaroa eskainiko dugu, irailaren 28an Iruñean, Nafarroako Bertsozale Elkartearen egoitzan, 17:00etatik 19:00etara. Parte hartzeko izena eman beharko da, [ikerikuntza@bertsozale.eus](mailto:ikerikuntza@bertsozale.eus) helbidera idatzita.

**TEILATUPEAN**

Haurren bertso antzerki BERRIA

Kontrataziorako [marketina@lanku.eus](mailto:marketina@lanku.eus) helbidera idatzi edo 675.716.472 telefonora deitu